

Bittor Alkiza

• ATHLETICEKO JOKALARIA •

«Ligan dagoen partidurik politena izaten da»

■ **Beste derbi bat da hau, baina Realaren aurkako norgehiagoka beti da berezia zuretzat, ezta?**

Bai, partidu berezia da, Euskal Herriko bi talde izango garelako aurrez aurre. Horrez gain, ni Realean jokatu naiz, eta niretzat partidu berezia da. Beti esan dut Ligan dagoen partidurik politena dela.

■ **Nola ikusten da Bilbotik Realaren azken bolada txarra joko eta emaitza aldetik?**

Talde guztiak oso parekatuak daude. Momentu honetan norgehiagokak irabaztea oso zaila da denontzat, eta beraiei ere hori gertatzen ari zaie. Orain beheko taldeek badakite jardunaldi gutxi gelditzen direla, eta Lehen Mailan jarraitzeko partiduak irabazi behar dituztela eta puntuak atera. Goikoak ere berdin. Ikusten dute Europen egon nahi badute puntuak atera behar dituztela. Benetan partidu zailak dira, eta presio handiarekin jokatzen dira.


■ **Realeko jokalaria garrantzitsuek ezin izango dute derbia jokatu. Beharbada une aproposa da Realaren aurka jokatzeke?**

Kovacevic eta De Pedro, batez ere, oso jokalaria onak dira. Hala ere, Realean badaude beste jokalaria batzuk ez dutenak aipatutakoen moduan jokatzen, baina badutenak beste era bat jokatzeke. Derbiak jokatzeke jokalaria aproposak dira.

■ **Jada Realari irabazteko gogoia izango duzu. Athleticen zaudenetik ez duzu garaipenik lortu.**

Gogoia beti izan dut. Ez bakarrik derbia delako edo Realaren aurka delako. Irabazi nahi dut, batez ere, hiru

■ ■ ■ Gipuzkoarrak dira Bittor Alkiza eta Mikel Aranburu, baina talde desberdinetan daude: Alkiza Athleticen eta Aranburu Realean. ■ ■ ■ Beren taldeetako jokalaririk teknikoenetakoak dira biak. ■ ■ ■ Derbi asko daramatza jokatuta Alkizak; Aranburuk, berriz, aurrea izango du.



Bittor Alkiza

«Irabaziz gero, Txapeldunen Ligan sartzeko aukera izango dugu»

Mikel Aranburu

«Jarraitzaile gehienek ez dute arazorik. Elkartuta egon behar dugu»

Asier Iturriagaetxebarria
BILBO

Mikel Aranburu

• REALEKO JOKALARIA •

«Mundiala orain hemen dut, igandeko derbian»

jokatu dudalako. Partiduz partidu joan beharra dut, ordea, eta ez dut pentsatu behar jada lehen ekipoko jokalaria naizela.

■ **Igandean galduz gero, adio UEFari?**

Adio igual ez, baina gero arte bai, nahiko gaizki jarriko litzaigukeelako sailkatzea.

■ **De Pedrok ez du jokatuko. Erantzukizun handiagoa al duzu horrela jokoa sortzeko orduan?**

Ez zait iruditzen, Realak beti ekipo moduan jokatzen duelako.

■ **Jokoarekin segituz, eskas samar dabil Real, ezta?**

Bai, hala da, nahiz eta Barcelonaren kontra lehen zatian ondo ibili ginen.

■ **Athletic zer moduz ikusten duzu?**

Talde zaila da irabazteko. Nahiz jokoz ez ongi ibili, azkenean emaitzak lortzen ditu.

■ **Lehen itzulian izan al zinen Anoetan Real-Athletic ikusten?**

Ba ez, Real B-rekin kanpoan partidu toka-tu zitzaigulako.

■ **Partidu hartan jarraitzaile batzuen arteko giroa ez zen ona izan...**

Garbi dago pike bat beti egongo dela, baina pike horrek sanoa izan beharko luke beti. Bi taldeetako jarraitzaile gehienek ez dute arazorik euren artean, eta nik uste garbi izan behar dugula guztiok ere elkartuta egon behar dugula.

■ **Igandean da derbia, eta igandean hasiko da 20 urtez azpiko Mundiala. Zer, jada gogoratu ere ez Mundialaz?**

Ez, ez. Mundiala orain hemen dut, derbian.

Enekoitz Esnaola
DONOSTIA



ANDER GILLENEA / GARI GARAIALDE

■ **Lehengoan Barcelonaren kontra jokatu zenuen, igandean Athleticen kontra duzue... Zer, Mikel, ametsetan?**

Niretzat partidu gehienak dira ametsak bezala. Are gehiago igandeko hau, gipuzkoar batentzat partidu berezia baita Athleticen kontra.

■ **Honezkero lehen taldeko jokalaria sentituko zara edo oraindik filialekoa?**

Une hauetan Real dut buruan, azkeneko sei partiduetan lehen taldearekin